ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2018ko ekainaren 22a, ostirala • 72 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

## ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**6/2018 Foru Araua, ekainaren 13koa, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetza hitzarmena berresteko. Hitzarmen horren bidez, Ignacio Aldecoa Kultura Etxea eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitako zerbitzu eta museoetako liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarera sartuko dira**

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko ekainaren 13an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

6/2018 Foru Araua, ekainaren 13koa, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetza hitzarmena berresteko. Hitzarmen horren bidez, Ignacio Aldecoa Kultura Etxea eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitako zerbitzu eta museoetako liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarera sartuko dira.

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko liburutegiei buruzko legeak III. tituluaren 13.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskadiko irakurketa publikoko sarearen helburu garrantzitsuena da herritarrei sareko kultura eta informazio erregistroetara iristeko aukera ematea, eta ahalik eta aukera zabalena eskaintzea kanpoko informazio eta kultura edukietara, erabilera publiko orokorreko liburutegien zerbitzuetan daudenetara, iritsi ahal izateko. Era berean, 13.2.b) artikuluan xedatzen du Euskadiko irakurketa publikoko sarean sar daitezkeela erabilera publiko orokorreko liburutegiak, dagokien hitzarmenaren bidez.

Arabako Foru Aldundia da Ignacio Aldecoa kultura etxearen eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitako zerbitzu eta museoetako liburutegien titularra, eta berak kudeatzen ditu.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren iritziz, beharrezkoa da lankidetza hitzarmena izenpetzea Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarera sartzeko Ignacio Aldecoa kultura etxea eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitako zerbitzu eta museoetako liburutegiak, eta online eta batera emateko Euskadiko liburutegien legeak 17. artikuluan zehaztutako liburutegi zerbitzuak.

Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernuaren Kontseiluak, 2018ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, lankidetza hitzarmen hori izenpetzea erabaki du.

1983ko martxoaren 7ko Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko erakunde antolamenduari buruzkoak, 6.2.b) 3. artikuluan xedatzen du Biltzar Nagusiei dagokiela berrestea Eusko Jaurlaritzarekin, Estatuarekin eta beste lurralde historiko, autonomia erkidego edo probintzia batzuekin hitzarmenak izenpetzeko, foru aldundiak egindako proposamenak.

Aurreko hori kontuan hartuta, proposatutako arauaren jatorria Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 6.1.2 artikuluan ezarritako eskumen propioetan datza, eta, Diputatuen Kontseiluak araugintzarako daukan ekimena dela medio, berari dagokio onartzea Eusko Jaurlaritzarekiko edo Estatuarekiko hitzarmenei edo beste lurralde historiko, autonomia erkidego edo probintzia batzuekiko hitzarmenei dagozkien proposamenak, eta, orobat, proposamenok Batzar Nagusiei igortzea, berrets ditzaten.

Arabako Biltzar Nagusien Funtzionamendu Arautegiaren apirilaren 22ko 17/2013 Foru Arauaren 145.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, hitzarmenak izapidetzea dagokion atalean, Arabako Biltzar Nagusiei dagokie Erabaki hori berrestea.

**Artikulu bakarra**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetza hitzarmena berrestea. Hitzarmen horren bidez, Ignacio Aldecoa kultura etxea eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitako zerbitzu eta museoetako liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarera sartuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 13a

*Presidentea*
*PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**ANEXO II**

| | |
|---|---|
| **EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, IGNACIO ALDECOA KULTUR ETXEKO ETA MUSEOETAKO NAHIZ EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILERA ATXIKITAKO LIBURUTEGIAK EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO LINEAKO SAREAN TXERTATZEKO** | **CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA DEL GOBIERNO VASCO Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA PARA LA INTEGRACIÓN DE LA CASA DE CULTURA IGNACIO ALDECOA Y LAS BIBLIOTECAS DE LOS MUSEOS Y DE LOS SERVICIOS ADSCRITOS AL DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE EN LA RED DE LECTURA PÚBLICA DE EUSKADI** |
| ........................(e)(a)n, 2018ko ......................aren ......(ea)n. | En……………………., a ….de……..2018 |
| **BILDUTA**<br><br>Batetik, Bingen Zupiria jauna, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren izenean eta ordezkari gisa.<br><br>Eta bestetik, Igone Martínez de Luna, Arabako Foru Aldundiaren izenean eta erakunde horren ordezkari gisa, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Diputatu anderea den aldetik.<br><br>Parte-hartzaileek, administrazioarteko harreman guztietan bete behar diren koordinazioaren, lankidetzaren eta elkarrekiko errespetuaren printzipioak aintzat hartuta, hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri. Xede horretarako, | **REUNIDOS**<br><br>De una parte, Bingen Zupiria, en nombre y representación del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco.<br><br>Y de la otra, Igone Martínez de Luna en nombre y representación de la Diputación Foral de Álava, en calidad de Diputada de Euskera, Cultura y Deporte.<br><br>Las partes intervinientes, dentro del marco de los principios de coordinación, colaboración y respeto mutuo que deben informar todas las relaciones interadministrativas, se reconocen mutuamente capacidad legal suficiente para el otorgamiento del presente convenio, y a tal efecto, |
| **AZALDU DUTE**<br><br>**LEHENENGOA.** Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.20 | **EXPONEN**<br><br>**PRIMERO.** El Estatuto de Autonomía del País Vasco, en su art. 10.20, establece |

1

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

| | |
|---|---|
| artikuluari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen osoa du liburutegien alorrean, baldin eta haien titularra Estatua ez bada. | que corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en materia de bibliotecas que no sean de titularidad estatal. |
| Eskumenen aitorpen horrek, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, dakar lurralde historikoei buruzko legeak (27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa) jasotzen duen eskumenen banaketa egitea; izan ere, lege horrek aldundiei eskumen esklusiboa ematen die bere titulartasunekoak diren liburutegiei dagokienez. Ildo beretik doa arau horren 7.a.12 artikulua; hots, artikulu horren arabera, lurralde historikoetako foru organoek eskumen esklusiboa dute eta liburutegiei dagokienez eskumen horretaz baliatuko dira lurralde bakoitzeko araubide juridiko pribatiboarekin bat etorriz. | Tal reconocimiento competencial, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, ha de conjugarse con la distribución competencial operada por la Ley de Territorios Históricos (Ley 27/1983**,** de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos), en cuanto atribuye a las Diputaciones competencia exclusiva en lo relativo a bibliotecas bajo su titularidad. En este sentido se expresa el artículo 7.a.12. de la misma norma, indicando que los Órganos Forales de los Territorios Históricos tienen competencia exclusiva, que ejercitarán de acuerdo con el régimen jurídico privativo de cada uno de ellos, en la materia de bibliotecas. |
| Urriaren 26ko 11/2007 Legeak, Euskadiko Liburutegiei buruzkoak (aurrerantzean, «Euskadiko Liburutegien Legea») 6. eta 2. artikuluetan ezartzen duenari jarraituz, kulturaren alorreko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Sailari dagokio Euskadiko Liburutegi Sistemak ematen dituen liburutegi-zerbitzuen plangintza garatzea. Eskuduntza horrek hartzen ditu Autonomia Erkidegoaren eskumeneko titulartasun publikoko liburutegi guztiak, baita titulartasun pribatukoak, foru-aldundienak eta Estatuarenak ere, borondatez sartzen badira Euskadiko Liburutegi Sistemara edo Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarera. | La Ley 11/2007, de 26 de octubre, de Bibliotecas de Euskadi (en adelante, Ley de Bibliotecas de Euskadi) establece en sus artículos 6 y 2 que al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de cultura le corresponderá desarrollar la planificación de los servicios bibliotecarios ofrecidos por el Sistema Bibliotecario de Euskadi, ejerciendo esta competencia sobre todas las bibliotecas de titularidad pública de competencia de la Comunidad Autónoma así, como sobre aquellas otras bibliotecas de titularidad privada, foral o estatal que se incorporen voluntariamente al sistema bibliotecario de Euskadi o a la Red de Lectura Pública de Euskadi. |
| **BIGARRENA.** Euskadiko Liburutegien Legeak III. tituluan –13.4 artikuluan, hain zuzen ere– ezarritakoari jarraituz, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen | **SEGUNDO.** La Ley de Bibliotecas de Euskadi establece en su Título III. art.13.4 que la Red de Lectura Pública de Euskadi (en adelante, RLPE) tiene como objetivo |

2

Eusko Jaurlaritza — Gobierno Vasco / Arabako Foru Aldundia — Diputación Foral de Álava

| | |
|---|---|
| (aurrerantzean, EIPS) helburu garrantzitsuena da herritarrei sareko kultur eta informazio erregistroetara sartzeko aukera ematea, eta ahalik eta aukera zabalena eskaintzea erabilera publiko orokorreko kanpoko liburu-zerbitzuetako informazio eta kultur edukietara sartu ahal izateko. Halaber, 13.2.b) artikuluan aurreikusten da irakurketa publikoko sarean sartuko direla erabilera publiko orokorreko gainerako liburutegiak.<br><br>**HIRUGARRENA.** Arabako Foru Aldundiak kudeatzen ditu Ignacio Aldecoa Kultur Etxea eta Museoetako nahiz Euskara, Kultura eta Kirol Sailera atxikitako liburutegiak, eta liburutegi horien titularra da.<br><br>**LAUGARRENA.** Ignacio Aldecoa Kultur Etxeak eta Museoetako nahiz Euskara, Kultura eta Kirol Sailera atxikitako liburutegiak, gaur egun Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak EIPSerako ezarrita duen sistema informatikoa (AbsysNet) partekatuko dute. Horren ondorioz, ezin ditu edukiak online eskuratu, plataforma publiko hori baliatuta.<br><br>**BOSGARRENA.** Hori guztia dela-eta, bi aldeek lankidetza-hitzarmen hau sinatzea adostu dute, honako klausula hauen arabera, | primordial proporcionar a la cudadanía el acceso a sus registros culturales y de información, así como el más amplio acceso posible a los contenidos informativos y culturales externos disponibles en el conjunto de servicios de las bibliotecas de uso público general. Asimismo, contempla en su artículo 13.2.b) la integración de las bibliotecas de uso público general en la red de lectura pública de Euskadi mediante los correspondientes convenios.<br><br>**TERCERO.** La Diputación Foral de Álava es titular y gestiona la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa, y las bibliotecas de los Museos y de los servicios adscritos al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.<br><br>**CUARTO.** La Casa de Cultura Ignacio Aldecoa y las bibliotecas de los Museos y de los servicios adscritos al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte compartirán el sistema informático de gestión actualmente implementado por el Servicio de Bibliotecas del Gobierno Vasco para la RLPE (denominado AbsysNet), lo que permitirá el acceso en línea de sus contenidos desde esta plataforma pública.<br><br>**QUINTO.** Por todo lo que antecede, ambas partes acuerdan la suscripción del presente Convenio de colaboración con arreglo a las siguientes |
| **KLAUSULAK**<br><br>**LEHENA. Xedea.**<br>Hitzarmen honek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzarako eta funtzionamendurako araubidea ezartzen du, Ignacio Aldecoa Kultur Etxeko eta Museoetako nahiz Euskara, Kultura eta Kirol Sailera | **ESTIPULACIONES**<br><br>**PRIMERA. Objeto.**<br>El presente convenio establece el régimen de cooperación y funcionamiento entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y la Diputación Foral de Álava al objeto de integrar a la Casa de la Cultura Ignacio Aldecoa y a las bibliotecas de los Museos y de los |

3

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

| | |
|---|---|
| atxikitako liburutegiak Euskadiko online Irakurketa Pulbikoko Sarean (aurrerantzean, EIPS online) txertatzeko, Euskadi.eus domeinutik online eman daitezen Euskadiko Liburutegien Legeak 17. artikuluan definitutako liburutegi-zerbitzuak. | servicios adscritos al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte en la Red de Lectura Pública de Euskadi (en adelante, RLPE en línea) y prestar en línea y conjuntamente desde el dominio “Euskadi.eus” los servicios bibliotecarios definidos en el artículo 17 de la Ley de Bibliotecas de Euskadi. |
| EIPSen txertatzean, liburutegiak kudeatzeko sistema informatiko erkidean (gaur egun, AbsysNet sistemaren 2.1 bertsioa) sartuko dira Ignacio Aldecoa Kultur Etxea eta Museoetako nahiz Euskara, Kultura eta Kirol Sailera atxikitako liburutegiak. | La integración de la Casa la Cultura Ignacio Aldecoa y de las bibliotecas de los Museos y de los servicios adscritos al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte en la RLPE determinará la incorporación al sistema informático común de gestión bibliotecaria (en la actualidad AbsysNet en su versión 2.1). |
| Helburu hori lortzeko, bi aldeek beren gain hartzen dituzte honako zerrenda honetan ageri diren konpromisoak. | Para la consecución de este objetivo, las partes asumen los compromisos que se relacionan a continuación. |
| **BIGARRENA. Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen dituen jarduerak.** 1. Arabako Foru Aldundia “Kultur Etxeko jarduerak” izeneko fitxategi baten arduraduna da. Aipatutako fitxategia behar bezala inskribatuta dago Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. | **SEGUNDA. Compromisos asumidos por la Diputación Foral de Álava.** 1. La Diputación Foral de Álava es responsable de un fichero denominado “Actividades Casa de Cultura” y este referido fichero está debidamente inscrito en la Agencia Vasca de Protección de Datos. |
| Arabako Foru Aldundiak bat egitean EIPS online sarearekin, fitxategi horretan dauden datu pertsonalak Kultura Ondarearen Zuzendaritzari (Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren mendekoa) lagako dizkio, “Liburutegi Publikoen Katalogoa” izeneko fitxategia osatzeko. Fitxategi horren arduraduna Kultura Ondarearen Zuzendaritza da. | Con motivo de la integración en la RLPE y al amparo de la Ley de Bibliotecas de Euskadi, la Diputación Foral de Álava cederá los datos de carácter personal a la Dirección del Patrimonio Cultural (dependiente del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco), al objeto de que pasen a formar parte del fichero denominado “Catálogo de Bibliotecas Públicas” del que la referida Dirección es Responsable. |
| Aipatutako datu pertsonalak lagatzen dira soil-soilik EIPS online esparruan liburutegi-zerbitzuak kudeatzeko. Eusko | Los referidos datos de carácter personal se ceden, exclusivamente, para la gestión de los servicios bibliotecarios, en el marco de |

4

| | |
|---|---|
| Jaurlaritzak ezingo ditu tratatu beste edozertarako, ezta hirugarrengoei laga ere.<br><br>Ignacio Aldecoa Kultur Etxeak eta Museoetako nahiz Euskara, Kultura eta Kirol Sailera atxikitako liburutegiek lineako EIPSen txertatzen direnean eta sistema informatiko erkidea (AbsysNet) erabiltzen hasten denean, "Liburutegi Publikoen Katalogoa" fitxategian dauden datuak erabili ahal izango dituzte, tratamenduaz arduratuko denez. Fitxategiaren arduradunaren eta tratamendua egingo dutenen arteko harremana araututa dago hitzarmenean, eta I. eranskin gisa erantsi da. | la RLPE en línea, no pudiendo el Gobierno Vasco tratarlos para ninguna otra finalidad, ni cederlos a ningún tercero.<br><br>Una vez la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa y las bibliotecas de los Museos y de los servicios adscritos al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte se integren en la RLPE en línea y hagan uso del sistema informático común (AbsysNet), tendrán acceso a los datos contenidos en el fichero "Catálogo de Bibliotecas Públicas" como encargado de tratamiento. La relación entre el Responsable de fichero y los encargados de tratamiento se regula en el convenio que se adjunta como Anexo I. |
| 2. Arabako Foru Aldundiak bere datu-base bibliografikoan, (AbsysNet 2.0) dituen erregistroak emango ditu, EIPS online katalogo kolektiboarekin bateratzeko (2018ko urtarrilaren 31an, 167.089 monografia, 7.638 ikus-entzunezko dokumentu eta 7.207tik gorako soinudun erregistro, CD eta DVD formatuetan).<br><br>Ildo horretan, lehentasunezko erregistro bibliografikoa EIPSek katalogatu duena izatea onartuko du. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak bermatuko du Ignacio Aldecoa Kultur Etxeak eta Museoetako nahiz Euskara, Kultura eta Kirol Sailera atxikitako liburutegietako erregistro bibliografikoetan jasotako informazioari eutsiko zaiola. | 2. La Diputación Foral de Álava proporcionará los registros contenidos en su base de datos bibliográfica, AbsysNet (versión 2.0), para su fusión con el catálogo colectivo de la RLPE (a fecha de 31 de enero de 2018 formado por 167.089 monografías, 7.638 documentos audiovisuales y más de 7.207 sonoros en formato CD y DVDs).<br><br>En este sentido, aceptará que el registro bibliográfico prioritario sea el catalogado por la RLPE. No obstante, el Gobierno Vasco garantizará el mantenimiento de toda la información posible contenida en los registros bibliográficos de la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa y de las bibliotecas de los Museos y de los servicios adscritos al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte. |
| 3. Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eskatutako datu eta estatistika guztiak emango ditu, sistema informatiko erkidean sartzeko eta sarean ematea erabakitako zerbitzuak bideratzeko. | 3. La Diputación Foral de Álava facilitará cuantos datos y estadísticas le sean requeridas por el Gobierno Vasco para la realización de la incorporación al sistema informático común y para la prestación de los servicios en red que se determinen. |

5



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| | |
|---|---|
| 4. Arabako Foru Aldundiak bermatuko du liburutegi-zerbitzuen arteko komunikazioetan Eusko Jaurlaritzako EIPS barruan dagoela jakinarazten dela. | 4. La Diputación Foral de Álava garantizará que en la comunicación de los servicios bibliotecarios esté presente su pertenencia a la RLPE del Gobierno Vasco. |
| 5. Erabiltzaileek EIPSen zerbitzuei buruzko informazioa jasotzen dutela bermatuko du Arabako Foru Aldundiak. | 5. La Diputación Foral de Álava garantizará la información a la persona usuaria sobre los distintos servicios de la RLPE. . |
| 6. EIPS online sarean benetan sartutako unetik zenbatzen hasita, Arabako Foru Aldundiak bermatuko du EIPSeko liburutegietatik jasotako mailegu-eskariei erantzungo diela, zerbitzuenaren beharrak eta ondare bibliografikoa babesteak horretarako bidea ematen badute. | 6. La Diputación Foral de Álava garantizará que, desde la fecha de integración efectiva en la RLPE, se atiendan las peticiones de préstamo en red que se reciban de las bibliotecas de la RLPE, siempre que lo permitan las necesidades del servicio y la salvaguardia del patrimonio bibliográfico. |
| 7. Arabako Foru Aldundiak bermatuko du Internet bidez izapidetzen direla orduan maileguan dauden dokumentuen erreserbak, eta eskuragarri moduan daudenen eskaerak ere bai. Hala ere, ez dira onartuko eta kanpoan utziko dira berariaz mailegurako eskuragarri dauden dokumentuen eta AFAk adierazten dituen beste batzuen Internet bidezko eskaerak. | 7. La Diputación Foral de Álava asegurará que se tramiten las reservas vía internet de aquellos documentos que en ese momento estuviesen prestados, así como las peticiones por internet de aquellos documentos que en ese momento se encontrasen en situación de disponibles**.** Sin embargo, no se atenderán y se excluirán expresa y automáticamente las peticiones por internet de aquellos documentos que se encuentren disponibles para el préstamo y aquellos otros que la DFA indique. |
| 8. Arabako Foru Aldundiak bermatuko du urtean erositako funtsen prozesu teknikoa, Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak arlo horretarako ezarritako jarraibideen arabera. Halaber, autoritateen erregistro bibliografikoak sortzeko eta garbitzeko lanetan parte hartuko du. | 8. La Diputación Foral de Álava garantizará el proceso técnico de los fondos anualmente adquiridos, ajustándose a las pautas establecidas a este respecto por el Servicio de Bibliotecas del Gobierno Vasco. Asi mismo, colaborará en las tareas de depuración de duplicados y creación de registros bibliográficos de autoridades. |
| Hitzarmen honen jarraipena egiteko bileretan, foru liburutegiek katalogo erkidea aberasteko egingo duen ekarpena | En las reuniones de seguimiento del presente convenio se analizará la |

6

| | |
|---|---|
| aztertuko da, eta dagozkion konpentsazioak erabakiko dira. | aportación de la red de bibliotecas forales al enriquecimiento del catálogo común y se adoptarán las compensaciones oportunas, en su caso. |
| 9. Arabako Foru Aldundiak liburutegietako langileei erraztasunak emango dizkie liburutegi-zerbitzuak programatutako berariazko ikastaroetara joateko, baita sektore-batzordeetan eta alderdi baten erantzukizun zuzena ez diren interes komuneko gaien inguruan egiten diren lantaldeetan parte hartzeko ere. | 9. La Diputación Foral de Álava facilitará la asistencia de su personal bibliotecario a los cursos específicos de formación programados por el Servicio de Bibliotecas del Gobierno Vasco y su participación en las comisiones sectoriales y grupos de trabajo que se establezcan sobre temas de interés común que no sean responsabilidad directa de una de las partes. |
| 10. Arabako Foru Aldundiak bere gain hartuko ditu bateratze informatikoak eragingo dituen gastuak (sistema informatikoa abian jartzeko laguntza-langileak, automaileguak sistema berrira egokitzea, sistema horietan lanean jarduteko epealdian erosketa- eta aurrekontu-moduluetan laguntzeko langileak, bateratu ostean erregistro bibliografikoan agintaritzak berrikustea eta sortzea, sustapen-gastuak...). | 10. La Diputación Foral de Álava asumirá los gastos derivados de la fusión informática (personal de apoyo para la puesta en marcha del sistema informático, adecuación de los autopréstamos –si los tuviera- al nuevo sistema, personal de apoyo para el módulo de adquisiciones y presupuestos durante el período en que se trabaje en los sistemas, la revisión y creación de autoridades en los registros bibliográficos después de la fusión, gastos de promoción...). |
| 11. Arabako Foru Aldundiak kudeatuko ditu EIPSeko irakurketa kluben sareko liburu-bildumen eskaera, bidalketa eta harrerak. | 11. La Diputación Foral de Álava gestionará las peticiones, envíos y recepción de los lotes bibliográficos para la red de clubes de lectura de la RLPE. |
| 12. Arabako Foru Aldundiak Liburutegi Zerbitzuarekin elkarlanean arituko da Arabako Lurralde Historikoko udal liburutegien euskarri eta aholkularitzan. | 12. La Diputación Foral de Álava colaborará con el Servicio de Bibliotecas en el apoyo y el asesoramiento a las bibliotecas públicas municipales del Territorio Histórico de Álava |
| **HIRUGARRENA. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere gain hartzen dituen jarduerak.**<br>1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak EIPS online sarearen katalogo-egituran txertatuko du Ignacio Aldecoa Kultur Etxea, zenbait sukurtsal dituen berariazko liburutegi gisa | **TERCERA. Compromisos asumidos por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.**<br>1. La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi integrará a la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa en la estructura de catálogo de la |

7

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

| | |
|---|---|
| (Museoetako liburutegiak zein Euskara, Kultura eta Kirol Sailera atxikitako liburutegiak), foru-sarea izaten jarraitzen duela ikusten jarri dadin. | RLPE en línea como una biblioteca diferenciada con diversas sucursales (las bibliotecas de los Museos y de los servicios adscritos al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte), a fin de mantener su visibilidad como red foral. |
| 2. EIPS on line sarean integratu arren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak autonomia emango dio Ignacio Aldecoa Kulur Etxeari, plangintza egiteko eta jarduerak eta zerbitzuak kudeatzeko (mailegu-politika, erosketen kudeaketa eta abar), goi-mailako erabiltzaile profesionalen moduko baimenaz tresna erabiltzea bideratzeko, herriko kultura-politikaren beharrak asetzea xede hartuta. | 2. No obstante la integración en la RLPE en línea, la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi respetará la autonomía de la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa en su planificación, y gestión de actividades y servicios (política de préstamo, gestión de adquisiciones, etc.) y permitirá la herramienta con permiso de usuario profesional del mayor nivel, a fin de satisfacer las necesidades de la política cultural de la población. |
| Bereziki, Ignacio Aldecoa Kultur Etxeak une bakoitzean definitutako dokumentu-maileguen politika errespetatuko du, mailegu-politika bateratua definitzeko lan egitea eragotzi gabe. | En especial, respetará la política prestataria de documentos definida en cada momento por la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa, sin perjuicio de que se trabaje en colaboración para definir una política prestataria única. |
| 3. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erregistro bibliografikoetako informazio guztia bateratze-prozesuaren ondorioz ez dadila galdu bermatuko du. | 3. La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi garantizará que la información contenida en los registros bibliográficos no se pierdan como consecuencia del proceso de fusión. |
| 4. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Ignacio Aldecoa Kultur Etxea txertatuko du informazioa eta liburutegi-zerbitzuak kudeatzeko antolaketa teknologikoan, honako modalitate hauen arabera:<br>• Ignacio Aldecoa Kultur Etxeak eskatu bezain beste kudeaketa-sistemaren erabiltzaile profesionalen lizentziak emango dizkio. | 4. La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi integrará a la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa en la estructura tecnológica para la gestión de la información y servicios bibliotecarios y:<br>• Facilitará tantas licencias de usuario profesional del sistema de gestión como se soliciten desde la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa. |

8


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

| | |
|---|---|
| • Kudeaketa-sistemako erabiltzaile profesional kualifikatua jarriko du Ignacio Aldekoa Kultur Etxeko zerbitzu tekniko zentral bibliografikoen arduradunarentzat. Erabiltzaile horrek Ignacio Aldecoa Kultur Etxeko berariazko konfigurazioei eusteko ahalmena izango du. | • Facilitará un usuario profesional cualificado del sistema de gestión para la persona responsable de los servicios técnicos centrales bibliográficos de la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa. Dicho usuario tendrá potestad para mantener configuraciones específicas de la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa. |
| 5. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak IZENPE txartela lortzeko erraztasunak jarriko ditu; izan ere, txartel hori nahitaezkoa da liburutegien kudeaketarako AbsysNet sistema informatiko erkidera sartu behar duten udal-sareko langile guztientzat. | 5. La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi facilitará la obtención de la tarjeta IZENPE, obligatoria para todos el personal trabajador de la red foral que necesiten acceder al sistema informático común de gestión bibliotecaria AbsysNet. |
| 6. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Sistema erabiltzeko moduan dagoela bermatuko du, EJIErekin (sistemaren ustiaketaren arduraduna) egindako kudeaketa-enkarguan jasotakoaren arabera. Horren inguruan azpimarratzekoak diren ezaugarriak II. eranskinean jasota daude. | 6. La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi garantizará la disponibilidad del sistema en los términos recogidos en el encargo de gestión con EJIE (responsable de la explotación del sistema). Se incorporan en el Anexo II las características resaltables al respecto del mismo. |
| 7. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak liburutegiak kudeatzeko sistema informatiko erkidea merkatuan dauden azken bertsioetara eguneratuko du eta foru-liburutegiek sarean eman beharko dituzten zerbitzu berrien antolaketa eta ondorengo garapen zein funtzionamendurako aholkularitza teknikoa eskainiko du. | 7. La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi actualizará el sistema informático de gestión bibliotecaria en consideración a las últimas versiones disponibles en el mercado y prestará asesoramiento técnico en el planeamiento de los nuevos servicios en red que deba prestar la red foral de bibliotecas, así como en su posterior desarrollo y funcionamiento. |
| 8. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Ignacio Aldecoa Kultur Etxeari emango dizkio udal liburutegi-zerbitzuen jarraipen eta ebaluazio egokiak egiteko eskatutako estatistika guztiak, eta, bereziki, urteko memoria egiteko behar direnak. | 8. La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi facilitará a la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa cuantas estadísticas le sean requeridas para un correcto seguimiento y evaluación de sus servicios bibliotecarios y, en especial, para la realización de la memoria anual. |

9

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

| | |
|---|---|
| 9. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak EIPS online sarean Ignacio Aldecoa Kultur Etxea txertatzeak eragindako prozesuak bere gain hartuko ditu; zehazki: | 9. La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi asumirá los procesos derivados de la integración de la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa en la RLPE en línea y, en concreto: |
| • Zereginak diseinatzeko eta egikaritzeko jarduera informatikoak, katalogoetako informazioen bateratzea eta Foru kudeaketarako sistema informatikoa EIPSen sistema informatiko erkidera migratzea (AbsysNet 2.1). | • Las actuaciones informáticas del diseño y ejecución de las tareas, la fusión de la información de los catálogos y la migración del sistema informático de gestión foral al sistema informático común de la RLPE (AbsysNet 2.1). |
| • Azken lau urteotako irakurle aktiboak (helduak eta haurrak), EIPSko beste liburutegi batean alta emanda ez badaude, haien datuak sisteman kargatzea. | • La carga en el sistema de los datos de las y los lectores personas adultas e infantiles) activos en los últimos 4 años que no estén ya dados de alta en otra biblioteca de la RLPE. |
| • Ignacio Aldecoa Kultur Etxeko eta Museoetako liburutegiak zein Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitako zerbitzuetako langileen prestakuntza. | • La formación del personal de la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa y de las bibliotecas de los Museos y de los servicios adscritos al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte. |
| 10. EIPS online sarean Foru-liburutegien Sarea txertatu ostean, Foru-liburutegietako liburutegien tamainak EIPSeko beste liburutegi batzuetara maileguak egiteko lan handia sor dezakeela kontuan hartuta, gehienez urtebete iraungo duen azterketa-aldia ezarri da, karga horren bolumena ebaluatzeko eta zehazteko, EIPSen eskura dagoen informazioa oinarri hartuta. | 10. Una vez integrada la red foral de bibliotecas en la RLPE en línea, dado que la dimensión de las bibliotecas de la red foral de bibliotecas puede conllevar una importante carga de trabajo en la prestación del préstamo a otras bibliotecas de la RLPE, se establece un periodo de análisis de un máximo de un año de duración para evaluar y determinar el volumen de dicha carga en base al análisis de la información disponible en la RLPE. |
| Adierazitako ebaluazioa egin ostean, ikusitako premiak oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak emango duen laguntza erabakiko da, diferentzia hori | Una vez realizada la evaluación señalada, y en base a las necesidades evidenciadas, se determinará un apoyo por parte de la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco que compensaría la |

10

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

| | |
|---|---|
| konpentsatzearren zerbitzu hauek emanez: | diferencia a través de la prestación de los siguientes servicios: |
| a) Mailegu digitalera sarbidea eLiburutegia plataformaren bidez. | a) Acceso al préstamo digital, a través de la plataforma eLiburutegia. |
| b) Funts bikoitzak kudeatzea, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburutegi Zerbitzuaren bitartez. | b) Gestión de fondos duplicados por parte del Servicio de Bibliotecas de la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco. |
| c) Foru-liburutegien antzinako funtsak digitalizatzea, beti ere, bere funtsen artean ondare bibliografikokoak diren funtsak badaude. | c) Digitalización de fondo antiguo de las bibliotecas de red foral de bibliotecas, siempre que tuvieran en su fondo bibliográfico obras de patrimonio bibliográfico. |
| **LAUGARRENA. Hitzarmenaren jarraipena eta kontrola.** Hitzarmena eta izenpetzaileen konpromisoak gauzatzen diren jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko eta hitzarmena dela eta sor daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebazteko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, hauek osatuta: | **CUARTA. Seguimiento y control del convenio.** Para el seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes, así como para la resolución de posibles problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse respecto del convenio se creará una Comisión de Seguimiento que estará formada por: |
| a) Eusko Jaurlaritzaren bi ordezkarik: alde batetik, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren titularra; eta bestetik, zuzendaritza horri atxikitako Liburutegi Zerbitzuaren titularra. | a) Dos personas en representación del Gobierno Vasco, por un lado la persona titular de la Dirección de Patrimonio Cultural y, por otro, la persona titular del Servicio de Bibliotecas adscrito a dicha Dirección. |
| b) Arabako Foru Aldundiaren bi ordezkari, alde batetik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Zuzendaritzako pertsona titularra, eta, bestetik, aipatutako Zerbitzu Zuzendaritzara atxikitako Kultur Etxeko Zerbitzuburua. | b) Dos personas en representación de la Diputación Foral de Álava, por un lado la persona titular de la Dirección de Euskera, Cultura y Deporte y, por otro, la jefatura del Servicio de Casa de Cultura adscrito a dicha Dirección. |
| Lehenengo urtean, hiru hilez behin bilduko da batzordea, gutxienez, eta epealdi hori igaro ondoren, urtean behin. | En el primer año, la comisión se reunirá, como mínimo, una vez al trimestre, y una vez pasado dicho periodo, una vez al año. |

11

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

| | |
|---|---|
